

Polizia-ereduaz: abiapuntua

Jon Mirena Landa

Zuzenbide Penaleko katedraduna eta
Giza Eskubide eta Botere Publikoen
Unesco Katedrako zuzendaria (EHU)

Hauteskundeak igaro ondoren epe luzeko hausnarketak plazaratzeko aukera egokia dela ematen du. Sarritan polizia-ereduaz eztabaidatzen da jada halakorik indarrean ez balego bezala. Baina egon badago eta, agian, daukagunaren kontzientzia argiaz hasi beharko ginateke etorkizunean aldaketak egin nahi izatekotan. Izan ere, Euskadik poliziaren eskuduntza 1980. urtetik aurrera eskuratu eta garatu zuenetik, Ertzaintza batez ere —eta neurri batean udal-poliziaz ere— ezaugarri propioekin gauzateari ekin zitzaion. Ikus dezagun.

Inork ez du zalantzan jarriko Ertzaintza birjaiotzeko zorian zegoenean Gernikako Estatutua onartu berria zela, halako *shock* egoeran geundela segurtasunaren ikuspegitik, batez ere Guardia Zibilarengan eta Polizia Nazionalarengan herriaren gehiengo oso zabalaren aldetik inongo konfiantzarik ez zegoelako. Erabateko konfiantzarik eza zen nagusi arrazoi funtsatu eta bote-retsuen eskutik, zeren eta dikta-dura osoan zehar giza eskubideen urraketa oso larri eta sistematikoak egiten jardundakoak zirelako aipatu estatu-poliziaz, mota guztietako jende-multzoen kontra. Areago, oraindik ere demokraziarako iraganbidean eta denbora askoan, polizia-gorputz horiek jarraituko zuten tortura sistematikoa aplikatzen; errepide-kontrolan, indar ez-proporzionala lagun, hiritarrak hiltzen; eta oro har euskara eta euskaldunon izaeraz usaintzen zuenaren guztia-aren aurkako jarrera ez-demokratikotik beraien lana eginez.

Trantsizioak ez zuen sakoneko garbiketarik egin esparru honetan, ezta argitu ere —are gutxiago epaitu— egindako sarraskiak. Gaurko terminologia-moldeaz esatearren: *zoru etikorik ez*; egindako delitu eta giza eskubideen urraketa sistematikoaren irakurtzeko *orririk ez*; atzean egondako erantzukizun indibidual zein erakunde-konplizitaterik argitzerik ez. Laburbilduta: horren gaineko egia, justizia eta memoriarik ere ez... gaur arte! Beraz, bide batez,

ez dezagun hau guztia ahaztu gaurko indarkeria-eztabaida politikoetan serio murgildu nahi izanez gero.

Baina buelta gaitzezen polizia-eredura. Ertzaintza lehenengo unetik deskribatu berri den eredu ez-demokratiko eta zapaltzailatik aldendu nahi izan zen, herritik sortu eta herriaren zerbitzura jartzeko asmoz. Horra hor ereduaren lehenengo zutabeetako bat ahaztu ezin duguna. Horregatik eta horren ondorioz premiazkoa zen polizia ahalik eta gehien herriko hizkuntza-errealitatetik ere hurbil egotea: alegia, euskalduntzea. Euskal polizia ereduaren lehenengo ezaugarria, beraz, bada ofizialak diren bi hizkuntzetan jardun ahal izatea egiten dituen mota guztietako zerbitzuetan. Herriak ikusi behar du Ertzaintzak eta udal-poliziaz gure kultura —osoa— bere egiten dutela legez eta arimaz.

Ildo honetatik, gaurko errealitatera jauzi handi bat egiten, herritik hurbil ere egon beharko da polizia-eredua berdintasun eta anizta-

sunaren ikuspegitik. Iparrorratzak bailiran gizon-emakumeen berdintasuna edota kultur-aniztasuna erdigunean kokatu behar. Horrek planifikazioa ere ekarri behar du ertzainen aukeraketan eta esparru operatiboaren diseinuan, sexu (bai eta sexu-identitate, orientabide, genero eta bestelako) diskriminazioak bukatu aldera, batetik, eta, bestetik, kulturartekotasuna behar bezala integraturik egote aldera.

Esandakoaz gain, bada ereduaren beste zutabea: indarraren erabilerrarena. Hemen abiapuntu gisa halabarrez gure ibilbide historikoa ere kontuan eduki beharko genuke. Ezingo genuke ahaztu, lehenik eta behin, diktaduratik jarauntsitako estatu-polizien kontra-eredua. Hortaz, horri buelta emanez, giza eskubideen bermeak eta errespetuak beste zutabea behar du izan. Eta errespetuaz ari naizenean ez nabil, besterik gabe, legezkoasun printzipioaz. Alegia, Ertzaintzan hasieratik legea errespetatzeaz gain, harago joan nahi izaten zen, autoexijentzia-maila igoz. Horrek zubi ederra eraikitzen du giza eskubideen kultura erakundearen muine-raino sar dadin. Eta honetan kontu handiz jardun behar dugu: hots, hauteskunde-kanpainan izan dugun ika-mika ximple eta azalekoa (armak bai ala ez) baztertu beharra dago errotik. Definizioz poliziaz indarra erabili behar du, baina proportzioz eta neurritz une oro. Jarrera politiko populistek (polizia eta delitugilea aurrez aurre *batuketa zero* jokoa-rena kasu) ezin dute gobernatu eztabaida serio hau.

Bi ezaugarri daude, beraz, alderdi politiko guztientzako abiapuntu jarri daitezkeenak: batetik, hurbileko polizia herri-nortasunean oinarritu beharra, eta, bestetik, eskarmentu historikoaren poderioz giza eskubideen defentsa sutua. Horiek biak onarturik, ereditik errealitatera norainoko aldea dagoen eztabaida genezake, hobetze aldera. Baina, nire iritzi apalean, eredu-eztabaida ez litzateke erabili beharko ika-mika hutsalerako tresna gisa.

Izan ere, kontsentsu politiko oso zabal baten bitartez aipatu zutabeak berretsiko bagenitu, geroko lan sektoriala esparru operatiboan (indar letalaren edo ez-letalaren protokoloetan, manifestazioen ingurukoetan...) errazago lortzeko bidean geundeke, euskal polizia hobeagoa edukitze-kotan. ●

Ertzaintza lehenengo unetik eredu ez-demokratiko eta zapaltzailatik aldendu nahi izan zen, herritik sortu eta herriaren zerbitzura jartzeko asmoz

Politikoki zuzena I



JIRA
Maialen Akizu

5 O urte bete dira Gipuzkoako lehen bertso eskola sortu zenetik Aretxabaletako Almen ikastolan. Atzo-gaurretan, baina, sare soziale-tan bertsolearen inguruko albistea beste titular bat da: «Marko ideologiko jakina dago txapelketan, eta pobrea». Titularra baino interesgarriagoa da ondorengo. Kezka nagusia da bertsolearen esan dai-tekeenaren eta esan ezin denaren esparrua mugatua dagoela, eta geruza ezberdinak izan arren, oro har, modek eta kokapen txalotu jakinak daudela: Trumpen alde ez duela inork kantatzen, Israelen arrazoiak aipatzen, abortua zalantzan jartzen.

Ainhoa Urien eta biok aurtengo Bertso-mintzako jardunaldietan gai bertsoa jorratzeko proposamena izan genuen: (bertsolaritzan) Diskurtso guztiak errespetagarriak dira? Galdera honen zurrumurrua, bertsolaritzan ez ezik, ikus-entzunekoetan, politikan, kuadrillan ere badago eta kantzelazioaren kultura izena jarri zaio. Interesatzen zait gaia, sareetako tonua hartzen kostu egiten zait eta zutabe batean tarte gutxi dago. Jarraituko dut. Baina, noren askatasunaren seinale litzateke mariken kontra ere kantatzen duen bertsolaritzaz? ●

Ib(h)ilbidea



BIRA
Ainize Madariaga

Batuetan birrikak puzten dituzu gehiago, iduri luke badutela gibe-leko erreserba-gela. Orduan ohartzen zara arnasten ari zarela, ematen du halako bake-aire bat giroari. Halaxe harrapatu dut ene burua, alabari irakurtzean Pantxo zezenak kausitzen duela jendeen atzaparretatik libratzen, zezen-plazatik jauzi eginez eta hiriko karraketan barrera galduz. Pello Añorgak idatzi eta Jokin Mitxelenak ilustratu duten liburua heldu zaigu etxerat Haria-harpidetzari esker.

Eguna ipuin horrekin bukatu badut, bertze honekin hurrengo hasi: goizean goiz zezen-kumeak ihes egin duela Donibane Garaziko hiltzetatik. Irratiak oihu egiten du, behin eta berriz: «Karraketan badabil aratxea, kasu eman ezazue. Azkenik ikusia izan da Jai-Alaiko biribilgunean. Bistaratzen baduzue, otoi, deitu hona, hemen baitira laborariak beha». Hondarrean, oren batzuen buruko atzemana izan da; non eta Donibane Garaziko hiletzeko baratzean. «Nahi zuen jendea bildu, gaizoak, omenaldia», bota dit adiskideak. Hiltzetatik, hiletzerat, Pantxo dei dezakegun aratxeak, bizia luzatu dio bere buruari, asteartera arte, gutienez bai. ●